



EUSKARAREN ARAUAK ETA ERABILERAK KRIMINOLOGIAREN ALORREAN

HIZKERA ERRAZA
DENON ESKURA, GUZTION ARDURA

*Nerea EREÑA
Naroa GOROSTIDI
Maidor IBARROLA
Ane PEREZ*

AURKIBIDEA: I. Sarrera. II. Irakurketa Errazaren aldeko mugimenduaren ekarpenak. III. Zenbait dokumentu eta baliabide jakingarri. IV. Irakurketa errazaren bidetik, hizkera inklusiborantz zenbait jarraibide. V. Laburpena eta ondorioak.

I. Sarrera

Irakurketa erraza ezinbesteko tresna da ikasketa prozesuan. Formatu honetan eginda dauden materialek mundua interpretatzen laguntzen diete ikasleei eta gogoeta jarduera bultzatzen dute, ez soilik heziketa garaian, bizitza osoan zehar baizik. Kontuan izan behar da hizkera erraza eta irakurketa erraza ez direla kontzeptu berdinak; hizkera erraza irakurketa errazaren ezaugarrietako bat da. Hauek egunerokotasunean sortu daitezkeen hizkuntza arazoei aurre egiteko pentsatu dira, pertsona guztiek eskubide berdinak izan ditzaten arlo honi dagokionez.

II. Irakurketa Errazaren aldeko mugimenduaren ekarpenak

Irakurketa erraza demokrazia eta irisgarritasun kontua dela eta sortzen da.

Irakurketa errazeko materialak beharrezkoak dira, lehenik eta behin biztanleriaren %30ak arazoak dituelako testuak ulertu eta interpretatzeko; baita irakurketara sarrera gizarteko beharra delako eta hainbat lege-testu nazional eta nazioartekoetan dagoelako aitortua; eta azkenik, irakurketak ideiak, pentsamenduak eta bizipenak partekatzea ahalbidetzen duelako.

Irakurketa erraza eta hizkera erratza kontzeptuak desberdintzea komenigarria da. Hizkera argia eta erraza idazmolde erraz eta eraginkorra da, zeinak irakurleei adierazitakoa, idatziz zein ahoz, erraz ulertzea ahalbidetzen du.



Irakurketa erraza pertsona guztien beharretara moldatutako testu eta edukien idazketa metodoa da, bereziki irakurritakoa ulertzeko zailtasunak dituztenentzat. Testuak irakurketa errazera moldatzeko gramatika, ortografia eta lexikoaren tratamendu berezia egiten da, maketazio, diseinu eta ilustrazioen eransketarekin, testua argitzeko. Testuen naturari dagokionez, era ezberdinetakoak izan daitezke: juridiko-legalak, administratiboak, formatibo eta informatiboak, politikoak, artistiko-kulturalak, zerbitzukoak, aisialdirako eta denbora-pasarako, etab. Beraz, irakurketa erraza irakurtzeko materialak, ikus-entzunezkoak eta multimedia eskaintzeko modua da, arreta eta kontu handiarekin eginak, irakurtzeko edo ulertzeko zailtasuna duten pertsona horientzat.

Hauek dira irakurketa errazaren mugarri garrantzitsuenak:

- **1968:** irakurketa erraza Suedian sortzen da eta irakurketa errazeko lehen liburua argitaratzen da.
- **1997:** irakurketa errazeko zentroaren finkapena. Horren zuzendariak (Bror TronBracke) “irakurketa errazeko materialarentzat zuzentarauak” idazten ditu. Esperientzia Norvegia eta Finlandian zabaltzen dira.
- **1988:** *Inclusion Europe* erakundea sortzen da, ezgaitasun intelektuala duten pertsona eta beraien familientzako erakunde europarra.
- **1998:** *Inclusion Europe*-ek gidaliburu bat lantzen du: “Biderik errazena: zuzentarau europarrak irakurketa errazeko informazioa ezgaitasun intelektuala duten pertsonen zuzentzeko”. Erakundeak Logotipo europarra diseinatzen du pauta horiekin idatzitako testuak identifikatzeko.
- **2003:** Irakurketa erraza Espainiara “*Asociació Lectura Fàcil de Catalunya*” bidez heltzen da. Orduetik, erakunde eta ekimen ezberdinak sortzen dira irakurketa errazaren alde egiteko Espainia osotik zehar.
- **2004:** iparraldeko herrialdeetan izandako esperientzia dela eta, Irakurketa Errazaren Sare Internazionala sortzen da; gaur egun munduko 30 herrialdeetako 60 erakunde eta bazkide partikularrek osatzen dute.



Gaur egun, irakurketa errazaren garapena dela eta, hainbat baliabide eta lege sortu dira, esaterako, proiektuak, web-orriak, tresneria teknologikoa, liburuak, etab. Irakurketa erraza bideratzeko sortu diren legeen artean, bi arau ditugu, ISO eta AENOR arauak¹. Arau hauek irakurketa erraza inplementatzeko jarraibideak zehazten dituzte. Izan ere, funtsezkoa da erakunde eta eragile guztiek haien dokumentuak irizpide berberei jarraiki egin ditzaten.

III. Zenbait dokumentu eta baliabide jakingarri

Interneten laguntzari esker hainbat baliabide daude klik batera; teknologia berriek ere irakurketa errazari buruz nahi dena jakiteko eta ikasteko aukera ematen dute, beraz, bai fisikoki bai Interneten bidez behar adina informazio lortu daiteke.

*LF (Lectura Fácil), Irakurketa Erraza*², 2003. urtean sortutako irabazi asmorik gabeko erakunde bat da, pertsona guztientzat eskuratzeko modukoa den irakurketa, kultura eta informazioa lantzen duena, bereziki irakurtzeko zailtasunak dituztenentzat. Herritarren hizkuntzara erakundeetarako, erakunde sozialetarako eta hartzaile publikoarekiko komunikazioa hobetu nahi duten enpresetarako lege-testuak eta dokumentu informatzaileak moldatzen dituzte.

Eusko Jaurlaritzak abian jarri zuen ere “Irakurketa Erraza”-ren aurreneko proiektua; hau, Euskadi.eus web orrian dago erabilgarri; helburua zera da, nahasia eta ulertezina izan ohi den administrazio-hizkuntza herritarrek hobetu ulertzea.

Naiara Ibarrek idatzitako “*Irakurketa Erraza: ezinbesteko tresna euskararen normalizaziorako*”³ artikuluan, euskal esparruko datuak eskaintzen ditu, baita irakurketa erraza, klubak eta lehen liburuak ere. Gidak ere, hainbat daude eskuragarri; adibidez, *DISCAPNET*. Ezgaitasuna duten pertsonentzako irakurketa errazari buruzko artikulua bat dago, dena era zehatzean azalduta.

Horren harira, *Emtic: educación, metodología, tecnología, innovación y conocimiento* web-orrian⁴, irakurketa errazarako irakurgarritasun eta ulergarritasun irizpideak, dokumentu baliagarriak, tresneria teknologikoa, praktikak, liburu eta ereduak daude.

¹ <https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/norma?c=N0060036>
<https://www.une.org/encuentra-tu-norma/busca-tu-norma/norma/?c=N0061282>

² <https://lecturafacileuskadi.net/>

³ <https://lecturafacileuskadi.net/blog/irakurketa-erraza-ezinbesteko/>

⁴ <https://enmarchaconlastic.educarex.es/224-nuevo-emt/atencion-a-la-diversidad/3002-lectura-facil-un-modelo-de-diseno-para-tdos>



III. Ikasleen ekarpenak



Los siguientes **documentos** han servido de referencia para este artículo y recomendamos consultarlos para ampliar la información alusiva a estas pautas:

- [Información para todos: las reglas europeas para hacer información fácil de leer y comprender](#). FEAPS, ahora Plena Inclusión.
- [Lectura fácil: métodos de redacción y evaluación](#). Óscar García Muñoz.
- [Lectura Fácil](#). Colección de guías prácticas de orientaciones para la inclusión educativa. Ministerio de Educación, Cultura y Deporte.
- [Lectura fácil, puerta de acceso a la información, el conocimiento y la cultura](#). Down España.
- [Directrices para materiales de lectura fácil](#). IFLA.
- [Cómo elaborar textos de fácil lectura](#). Ayuntamiento de Albacete.
- [Decálogo de apoyo a la lectura fácil](#). CEAPAT.

Os facilitamos algunas **herramientas tecnológicas** que marcan tendencia en **accesibilidad cognitiva** y que ayudan a simplificar la información:

- **Diccionario Fácil**: servicio *online* donde se adaptan definiciones en lectura fácil conforme al glosario de términos y expresiones que tienen en su base de datos, base que se va ampliando progresivamente.
- **Wikipicto**: una aplicación *online* que te permite buscar diferentes términos para conocer su representación mediante pictogramas, facilitando la comprensión.
- **Simplext**: un proyecto liderado por Technosite, que pretende ser un sistema de simplificación textual del español, aunque aún se muestra en su versión *demo*. También existe una [versión para el inglés](#).
- **Conversores de texto a voz**: aplicaciones que permiten escuchar en audio la selección de un texto escrito en formato digital. Tenemos algunos ejemplos en los siguientes artículos: [Lectores de pantalla](#) y [Herramientas gratuitas para convertir texto en voz](#).
- **Readspeaker**: un complemento de accesibilidad web que te permite escuchar el contenido escrito que se expone en la Red.
- **Readability**: recurso que permite simplificar la lectura de cualquier web, seleccionando solo la parte textual y dándole un formato similar a la de un documento de texto.
- **Orange Confort+**: una solución que mejora la lectura de un sitio web para el confort de todos. Disponible para varios navegadores.
- **Mefacilyta**, para móviles con sistema Android, destinada a profesionales que trabajan con tecnología NFC que sea utilizada por personas con dificultades cognitivas.
- **Pictotraductor**: un traductor *online* de frases a pictogramas.
- **Araword**: aplicación gratuita en forma de procesador de texto que permite escribir con pictogramas, en versión PC y Android.
- **Adapro**: procesador de textos con una interfaz adaptada para personas con dificultades lectoras (por ejemplo dislexia) y fácilmente configurable.
- Proyecto europeo ["ICT for Information Accessibility in Learning"](#): ofrece en su [web](#) orientaciones de cómo hacer accesibles documentos textuales y/o multimedia.

Jakin badakigu Interneten mota askotariko informazioa lortu daitekeela, beraz arlo hauetarako sarea erabiltzea baliagarria dela ikus daiteke.

IV. Irakurketa errazaren bidetik, hizkera inklusiborantz hainbat jarraibide

Irakurketa errazak idatzizko informazioa jasotzeko eskubideari egiten dio erreferentzia. Legeen artean, bi arau ditugu irakurketa errazari begira: ISO-AENOR arauak. Arau hauek dokumentu errazen egokitzapenerako, sorrerarako eta baliozkotzerako deskribapen metodologikoa jasotzen dute, idazkera eta diseinurako jarraibideak eta gomendioak ere bai. Arau hauek, entitate eta diziplina ezberdinetan adituak diren pertsonak landu dituzte; irizpide eta gomendioak bateratzen dira profesional bakoitzak duen esperientziaren arabera. Arau hauek interesgarriak diren zenbait gai lantzen dituzte:



- **Irakurketa Errazerako egokitze-prozesua:** Prozesu honen xedea da bermtzea irakurketa errazeko dokumentuak, dokumentu originalaren zentzua eta izaera errespetatzen duela. Horretarako, garrantzitsua den informazioa jaso behar du (egokitzapenean parte hartzen duten figura ezberdinen iritzi pertsonalik adierazi gabe) eta dokumentuaren helburuari bete-betean eutsi behar dio (bereziki, ondorio juridiko edo administratiboak izango dituzten dokumentuen kasuan. Prozesuak bi fase ditu: moldaketa eta balioespena. Bigarren fase horretan zailtasun kognitiboak dituzten kideek hartzen dute parte, egiaztatzeko haien beharretara egokitzen direla dokumentu horiek.
- **Irakurketa Errazerako testua idazteko jarraibide linguistikoak.** Irakurketa Errazerako dokumentuak sortzen edo egokitzen direnean, arau honek ezartzen dituen jarraibide eta gomendioak kontuan hartu beharko dira. Adib. Ortotipografia, lexikoa eta esamoldeak, esaldiak, etab.
- **Irakurketa Errazerako dokumentua diseinatzeko jarraibide eta gomendioak.** Diseinua egiterakoan, jarraibide eta gomendioak errespetatu beharko dira. Adib. Dokumentuaren aurkezpena, argazkiak, aurkibidea, glosarioa, laburpenak, etab.

ISO arauaren jarraibideei men egitea eta testuak arduraz balioestea funtsezko urrats gisa jotzen da inklusibitatea eta justizia soziala bermatzeko ahaleginean.

V. Ondorio bidetik

Hizkuntzaren erabilera berri honekin, denek eskubide berdinak izatea ahalbidetzen da ulermenari dagokionez. Etorkizunean kriminologo izango garen moduan, baztertuak izateko zaurgarritasun egoeran dauden edo egongo diren pertsona taldeekin lan egingo dugu. Horregatik beharrezkoa ikusten dugu aipatutako urratsak/gomendioak/jarraibideak betetzea irakurketa erraza bere osotasunean errealitate bihurtzeko. Muga fisiko, psikiko nahiz sozialengatik irakurketaz gozatzeko aukerarik ez dutenentzat ezinbestekoa da irakurketa erraza.



WEBGRAFIA

- Consejo de Juventud de Extremadura. **Lectura fácil.** Hemendik berreskuratua: <https://www.cjex.org/lectura-facil/wp-content/uploads/sites/2/2017/08/documento-lectura-facil.pdf>
- Asociación Lectura Fácil. **¿Qué es la lectura fácil?** Hemendik berreskuratua: <http://www.lecturafacil.net/es/info/1-que-es-la-lectura-facil-lf/>
- Eusko Jaurlaritza, "Irakurketa Erraza" proiektua. Hemendik berreskuratua: <http://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritza/-/albiste/2017/eusko-jaurlaritzak-abian-jarri-du-irakurketa-erraza-ren-aurreneko-proiektua-euskadi-eus-web-orrian/>
- IBAR, N. **Irakurketa Erraza: ezinbesteko tresna euskararen normalizaziorako.** Hemendik berreskuratua: <https://www.euskadi.net/r61-s20001x/es/t59aWar/t59aMostrarFicheroServlet?t59aIdRevista=1&R01HNoPortal=true&t59aTipoEjemplar=R&t59aSeccion=4&t59aContenido=1&t59aCorrelativo=1&t59aVersion=2&t59aNumEjemplar=86>
- Fundación Once. Discapnet, El portal de personas con discapacidad. **Lectura fácil: un modelo de diseño para todos.** Hemendik berreskuratua: <https://www.discapnet.es/areas-tematicas/disenio-para-todos/accesibilidad-de-comunicacion/lectura-facil/lectura-facil-un>
- RUBIO PULIDO, M. **Lectura fácil: un modelo de lectura para todos.** Hemendik berreskuratua: <https://enmarchaconlastic.educarex.es/224-nuevo-emt/atencion-a-la-diversidad/3002-lectura-facil-un-modelo-de-diseno-para-tdos>